

ARTIUM

Centro-Museo Vasco de Arte Contemporáneo
Vitoria-Gasteiz

Rapearte

Rap-kontzertua eta gehiago

Gazteek kudeatutako programa

Dj, *freestyle*, mikro ibiltaria, rap arabiarra, grafitia, *break dance* eta beste zenbait lankidetzaz
Parte hartzaileak: Pira, Króniko, Muad, Facun Flez, Ph Fallawai, Bocem, Backmour, Neon, Locker,
Pulper, Maesescriba...

Ekainaren 7an, larunbata, 20.00etatik aurrera. Doako jarduera

Artiumek eta Vitoria-Gasteizko kaleko hezkuntza-zerbitzuak gazteek kudeatutako kultura-programa bat sustatzen dute

- *Rapearte* da taldearen lehendabiziko proposamena, *jazz*-kontzertu bat eta *hip-hop* erakustaldi bat
- Lau hilabetez aritu dira 16 eta 20 urte bitarteko hamabi gazte kontzertuaren xehetasun guztiak lantzen, hasi probasaietatik eta talde teknikoaren kontratazioraino

Artium, Vitoria-Gasteizko Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoak eta Irse-k kudeatzen duen hiri bereko kaleko hezkuntza-zerbitzuak gazteek kudeatutako kultura-programa bat bultzatu dute, asteburu honetan *rap* kontzertu batean eta *hip-hop*aren inguruko jarduera multzo batean gauzatuko dena. Hamabi gaztek osatutako talde bat lanean aritu da azken hilabetean *Rapearte* programaren xehetasun guztiak lantzeko, hasi probasaietatik eta kartelak eta zabalkundea egiteraino. Kontzertuaz gainera —zeinean bertako zenbait abeslarik parte hartuko duten—, grafitiak, *break dance* eta *disc-jockey*ak ere egongo dira. Programa arratsaldeko zortzietan hasiko da larunbatean, ekainak 7, Artiumen. Ez da sarrerarik ordaindu behar.

Jatorri eta ezaugarri bateko eta besteko gazteek modu beregainean kultura-proiektu bat kudeatzeko aukera izango zuten programa bat bultzatzeko ideia Artiumen Hezkuntza eta Kultur Ekintza Sailaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren kaleko hezitzaile taldearen arteko hainbat lankidetzaren emaitza da. Baina baita Zentro-Museoak beste erakunde batzuekin —Palmako Es Baluard, Lleidako La Panera eta Bartzelonako Museu Picasso, besteak beste—, museoen bisitariei buruz eta, bereziki, erabiltzaile gazteei buruz egin dituzten lanetan.

Programa honen helburua heziketa da, funtsean. Hala nahi duten gazteek kultura-proiektu bat, beren gizarte-errealitateari lotua, baina baita tokiaren ezaugarriari ere —oraingo honetan kultura-ekipamendu bat—, beren kabuz aurrera atera ahal izateko gutxieneko baldintza batzuk eskaintzea. Horrelako proiektu bat egiteak dituen zailtasunak ezagutzea da beste xedeetako bat, erantzukizuna izatea zer den eta zenbat lan egin behar den, taldean lan egiten ikastea eta, azken buruan, prozesuaz eta haren burutzeaz gozatzea. Asmoa da, orobat, taldearen kideak berrituz joatea, era askotako proiektuak burutu ahal izateko.

Rapearte-ren atzean dagoen gazte-taldeak interes berbera dutela adierazten dute, *hip-hop*a. «Ikasten ez den artea darabilgu adierazpide gisa, hiriko artea, araurik gabe, gure irudimena dela muga bakarra. Hiri honetako ahots gazteak gara, eta gure kulturaren parte hau ezagutzera gonbidatu nahi zaituztegu, aurreiritzirik gabe».

Guztien artean antolatu dute *Rapearte*, ekitaldi nagusia rap-kontzertu bat izango duena, baina *hip-hop* kulturaren ospakizuna ere izango dena, *break dance*aren, *disc jockey*en, grafitien eta mikro ibiltari baten bidez. *Rapearte* arratsaldeko zortzietan hasiko da larunbatean, ekainak 7, Artiumen Plaza aretoan, eta jarduera doakoa izango da.

Arabako Artium Fundazioa | Fundación Artium de Álava | Artium of Álava Foundation

Diputación Foral de Álava | Arabako Foru Aldundia

Gobierno Vasco | Eusko Jaurlaritza • Ayuntamiento de Vitoria | Gasteizko Udala • Ministerio de Cultu

El Correo • Euskaltel • EDP

Estrategia Empresarial • Diario de Noticias de Álava • EITB

Cadena Cope • Cadena Ser Vitoria • Cámara de Comercio e Industria de Álava

Centro de Cálculo de Álava • El Mundo del País Vasco Fundación Laboral San Prudencio

Fundación Banco Santander • Giroa • Guiraba • Ilustre Colegio Oficial de Médicos de Álava

Mondragon • Mondragon Lingua • Neumáticos Michelin • Onda Cero • Onda Vasca • Radio Vitoria

SEA Empresarios Alaveses • Seguridad, Vigilancia y Control (SVC) • Tecnalía • Tubacex

Xabide, gestión cultural y comunicación

Comunicación | Komunikazioa | Communications

abilbao@artium.org • bgodino@artium.org • +34 945 20 90 23